

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Urriaren 15era arte, herritarrek Nafarroako Urrezko Domina jasotzeko hautagaitzak aurkez ditzakete

Lehen aldiz, herritarrek hartuko dute parte Foru Komunitatearen sari nagusia ematen

Asteartea, 2018.eko urriak 2

Abuztuaren 29an zabaldu zen Nafarroako Urrezko Domina jasotzeko hautagaitzak aurkezteko epea, eta urriaren 15ean amaituko da. Instituzio, erakunde, elkarte eta pertsona fisiko nahiz juridikoek aurkez ditzakete Nafarroako Gobernuak ematen duen ohorezko sari nagusirako [hautagaitzak](#). Aurten, lehen aldiz, herritarrek hartuko dute parte saria ematen.

Jakina denez, Nafarroako Urrezko Domina gizartea hobetzen, balio demokratikoak finkatzen eta Foru Komunitatea atzerrian ezagutarazten lan nabarmena egin duten pertsona, instituzio, erakunde eta taldeei ematen zaie.

Hautagaitzak aurkezteko [deialdiaren](#) arabera, alde batera utziko dira pertsonak edo erakundeek saria beren buruarentzat edo legez ordezkatzan dituzten erakundeentzat eskatzeko aurkezten dituzten hautagaitzak.

Epaimahaia eta balioespen-irizpideak

Epaimahai batek balioetsiko ditu hautagaitzak. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollo izango da epaimahaiburua; eta alor eta erakunde hauetako zuzendaritza nagusien arduradunak, berriz, epaimahaikideak: Industria, Energia eta Berrikuntza; Errealitate Sozialaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren Behatokia; Aurrekontua; Lehendakaritza eta Gobernu Irekia; Erakundeekiko Komunikazioa eta Harremanak; Hezkuntza; Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua; Kultura - Vianako Printzea Erakundea; eta Ingurumena eta Lurraldearen Antolamendua.

Epaimahaiak gehienez hiru hautagaitza aukeratuko ditu, nagusiki irizpide hauek kontuan hartuta: herritarrek horrela hartutako ereduzko jokaera pertsonal edo kolektiboa izatea; gizartearen balio demokratikoak sustatzea; herritarren onurarako elkartasuna eta lanaren aldeko ekintzak bultzatzea; beren jardueraren barruan (kulturala, enpresakoa, soziala, etab.) gizarte solidarioagoa eta bidezkoagoa osatzeko ibilbidea izatea; emakumeek gizaritari egindako ekarpenak onartzen dituen genero-berdintasuna bultzatzea; hezkuntza, osasuna, ingurumena eta aurrerabide soziala sustatzea; eta Nafarroaren irudia kanpoan bultzatzea.

Epaimahaiak Foru Gobernuari helaraziko dizkio aukeratutako

hautagaitzak. Nafarroako Lehendakariak haietako bat aukeratuko du, eta hari saria ematea onartuko, domina jasoko duena ados badago.